

9. ERANSKINA
Ariketaren azalpenaren
zirriborrea

NOR ETA NOLAKOA DA NIRE LAGUNA? NOLAKOA NAIZELA
PENTSATZEN DUTE GAINERAKOEK?

❖ **FOLIO BIRAKARIA:**

Bakoitzak folio zuri bat hartuko du eta izenburu bezala, bere izena jarriko du. Izenburuak dioen bezala, folioa birakaria izango da, eta mahai guztitatik pasatu beharrean, norbera altxatu eta besteek norberaz duen ideiak idatziko ditu. Honekin hasi baino lehen, taldeka jarrita daudenez, taldekoek orrialde bakoitza betetzen hasiko dira, eta ondoren, altxatu eta gainerakoengana hurbilduko dira.

Horretarako, 15-20minutu utziko dira, eta orrialdean, ezaugarri fisikoak, izaerazkoak edota norberak dituen gaitasunak agertuko dira, era positiboan zein hobetu beharrekoan, noski.

Adibidea:

PAULE.

E.FISIKOAK	IZAERA	GAITASUNAK
- Begi politak ditu	- Lagun ona da	- Trebea da ingeleran
- ...	- ...	- ...

Hau egin ondoren, nik izenak paper batzuetan idatzi, eta zoriz, batzuk hartu eta horiei galdera batzuk egingo dizkiet.

- **Ados zaude besteok idatzi dutenarekin?**
- **Zer gustatu zaigu gehien? Zein gutxien?**
- **Zer sentitu dugu jolas hau egiterakoan?**
- **Zertarako balio izan duela uste dugu?**